



# CONECTA RURAL ZERBITZUAREN BALDINTZA BEREZIAK

## 1.- BALDINTZA BEREZIAK ETA BAIMENA EMATEA

### 1.1.- Helburua

Ondoren deskribatzen diren Baldintza Bereziak (aurrerantzean, "Baldintza Bereziak") TELEFÓNICA DE ESPAÑA, S.A.U. (aurrerantzean, "MOVISTAR"), A-82018474 IFK zenbakiarekin, helbidea Madrilen duena, Gran Vía 28, 28013-n, Madrilgo Merkataritza-Erregistroan inskribatuta dagoena 13.170 liburukian; 0 liburua; 8. atala; M-213.180 orria, eta BEZEROAren arteko (aurrerantzean, "BEZEROA") kontratuzko harremanak arautzen dituzte, Conecta Rural Zerbitzua emateari buruzko guztiari dagokionez (aurrerantzean, "Zerbitzua").

### 1.2.- Baldintza Berezien onarpena.

MOVISTAR-ek Zerbitzua eman ahal izateko ezinbestekoa da Baldintza Berezi hauek guztiak onartzea. BEZEROAK adierazten du, ildo horretan, Baldintza Berezi hauek irakurri, ulertu eta onartzen dituela, bere eskura jarrita daudenak une oro, kontratua egin baino lehenagotik, webgune honetan: <http://www.movistar.es/contratos>.

### 1.3.- Lotura Movistar zerbitzu finkoaren baldintzekin

(i) Azken erabiltzaileentzako publikoarentzat erabilgarri dagoen zerbitzu telefonikoaren abonurorokorraren Kontratu estandarreko Baldintza Orokorrak eta (ii) Movistar Internet Radio zerbitzuarenak, [www.movistar.es/contratos](http://www.movistar.es/contratos) helbidean argitaratuta daudenak, betetzen dituzte Baldintza Berezi hauek, bertan aurreikusten ez den guztiari dagokionez.

## 2.- ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

### 2.1.- Zerbitzuaren prestazioak.

Movistar Conecta Rural zerbitzua Movistar Internet Radio zerbitzuaren modalitate bat da, BEZEROARI sare mugikorren bidez eskainitako banda zabal finkoko zerbitzua ematen diona. Movistar-en sare mugikorren bidez eskainitako konexioak datuen 30 Mbps-ko abiadura nominal globala ahalbidetzen du jaitsierako norabidean eta 800 Kbps artekoa igoyerako abiaduran, hileroko 40GB-eko frankiziarekin.



MOVISTARREK Zerbitzuaren hasierako konexio-eskaera jaso eta hurrengo 15 egunetan jarri beharko du, gehienez 60 egunera luza daitekalarik zenbait lurraldetan, teknikoki posible denean, eskatzailearen erruzko oztopoak ez daudenean. MOVISTARREK BEZEROARI berretsiko dio teknikoki zerbitzua ematea badagoela hura kontratatu aurretik.

Aurrekoa alde batera utzita, hainbat arrazoiengatik, obra gehiago egin beharra, hirugarrenen lizentzia edo ziklo batzuetan eskaerak areagotzeagatik esaterako, hasierako konexio-epaia luzatu ahal izango da, eta egoera hori ematekotan, MOVISTAR-ek BEZEROARI hura jakinaraziko lioke.

Halaber, MOVISTAR-ek BEZEROARI jakinaraziko dizkio hura kontratatu aurretik, erabiltzaileak esperimentatu ditzakeen abiadura eraginkorra mugatzen dituzten faktoreak, operadoreak kontrolatu ahal dituen eta haren kontroletik kanpo gelditzen direnen artean bereizmena eginez.

## 2.2. Zerbitzuaren abiadurak

Zerbitzuak eman dezakeen abiadura maximoa Movistar-en sare mugikorraren estalduraren menpean dago, bai eta sarera sartzen den gailuak onartzen dituen ezaugarrien menpean ere, ondoren adierazten den bezala:

- Estaldura erabilgarria 2G, 3G edo 4G izango da, Movistar-en sareak bere kokapen ezberdinetan erabiltzen duen irrati-sarbidearen teknologiaren arabera, eta azken BEZEROAK bere helbidea Administrazioak Movistar-en erantzukizunpean dagoen herri-entitate batean duen arabera. Guzti hori urriaren 29ko ECE/1166/2018 Agindua betez, zeinaren bidez 30 Mbps edo gehiagoko abiadurarekin banda zabaleko zerbitzuetara sarbide-estaldura emateko plana onartzen den, 800 Mhz-ko bandan jabari publikoko kontzesioen operadore titularrek gauzatu beharrekoa.
- Jasotako seinalearen intentsitatearen arabera eta hurbil dauden beste erabiltzaileen jardueraren arabera, konexioaren abiadura erreala zerbitzuaren abiadura normalaren azpitik joan daiteke;
- Sare mugikorrerako sarbide-ekipamenduak onartutako teknologiak ezartzen du gailu bakoitza konekta daitekeen estaldura-mota. Erabilitako gailuak 2G, 3G eta 4G teknologiekin bateragarriak izan daitezke. Gainera, Erabiltzaileak lortutako gehienezko abiadura mugatu dezakete bere espezifikazio teknikoaren arabera.

Movistar-ek momentu bakoitzean ahalik eta abiadura handiena ematen saiatzeko konpromisoa hartzen du, araudi aplikagarriaren arabera. Gaur egun, zerbitzu honetan 30 Mbps-ko jaitsierako abiadura itxaron daiteke 4G-n , eta 0,8 Mbps-ko igoerako abiadura, behar bezalako sare-baldintzekin.



Adierazitako nabigazio-abiadura beti da zerbitzuaren abiadura baldintza optimoetan, eta hau hainbat faktoreen pean dago: estaldura-gunea, aplikazioa eta sarearen karga-egoera.

2G teknologia GSM/GPRS estandarrekin eta bere EDGE eboluzioarekin bateragarriak diren gailuek eta sareko ekipamenduek osatzen dute. Aldi berean, 3G teknologia UMTS sistemaren espezifikazioetan eta HSPA-k sartutako hobekuntzetan oinarritzen da. Azkenik, telefonia mugikorreko laugarren belaunaldia edo 4G LTE teknologian eta bere eboluzioan oinarritzen da.

Guzti horiek nazioarteko estandarizazioko erakunde eskudunek espezifikatutako teknologiak dira. 4G-n momentu bakoitzean erabilgarri dagoen abiadura teoriko maximoa izatea espero da, kokalekuaren sareko egoeraren arabera. Zerbitzurako espero den abiadura nominala 30 Mbps-koa da jaitzierarako eta 0,8 Mbps artekoa igoerarako, behar bezalako sareko baldintzekin.

Zerbitzua 3G eta 4G teknologientzat eskainiko da, lehen adierazitako baldintzen arabera.

### 2.3. Trafikoa kudeatzeko neurriak

Zerbitzuaren bezero eta erabiltzaile guztiek kalitatezko zerbitzu optimoa dutela bermatzeko, egoera zailenetan ere, baita aldentutako guneeetan ere, MOVISTAR-ek, baliabide partekatu bat erabiltzen denez, bere eskura dauden baliabide guztiak erabiliko ditu iruzurrezko erabilerak eta bezeroen aldeko gehiegikeriak saihesteko. Horrela, ezin izango da Zerbitzua erabili beste bezero baten erabilerarekin nahasten bada, edo sare-baliabideetan neurrigabeko moduan jotzen badu; hortaz, efektu berdinak sortzen dituzten gainerakoei kalterik egin gabe, ez da Zerbitzuaren erabilera baimenduko hau egiten duten bezeroei:

- Spam mezuen bidalketa, modu masibo eta jarraituan bidalitakoak, eta beste erabiltzaileak kaltetzen dituztenak.
- SIM txartela Movistar-ek emandako beste ekipamendu batean erabiltzeko ateratzea.
- Zerbitzuaren erabilera hasierako instalazioaren tokitik kanpo, Movistar-ena den ekipamenduaren mantentzearekin estalita dagoena.
- Antenaren manipulazioa edo teknikariak bezeroaren bizitokian instalatutako edozein elementuren manipulazioa, MOVISTAR-en berriazko baimenik gabe.

Arestian adierazitako arrazoiengatik eta erabiltzaileen artean sarearen bidezko erabilera orekatua faboratzeko, MOVISTAR-ek konexioaren abiadura modulatzeko eskubidea gordetzen du, datuen erabilera handia egiten ari diren bezeroen gainean, sarea gainezka dagoen guneeetan karga altuarekin, edo horren arriskuan, sarearen



berehalako pilaketa saihesteko eta ezohiko edo behin behineko sarearen pilaketen efektuak gutxitzeko. Hala ere, BEZEROAK momentu oro mantenduko du zerbitzurako sarbidea, kasu hauetan bere abiadura murriztua ikusirik, baina inolako kasuan izango da 1MB baino gutxiagokoa, eta ez du kostu gehigarririk izango. Xede horretarako, Movistar-ek "datuen erabilera handitzat" joko ditu hileko 40GB-ak gainditzen dituzten kontsumoak. Zerbitzuak hasierako abiadura-baldintzak berrezarriko ditu hilabete bakoitzeko 18an, eta momentu horretatik aurrera epe berri bat hasiko da.

#### 2.4.- Abiadura mugatzen duten faktoreak.

MOVISTAR-ek BEZEROARI jakinarazten dio abiadura efektiboa mugatu dezaketen faktore adierazgarriak, operadoreak kontrolatzen dituen faktoreen gainean eman daitezkeenak edo horren kontroletik kanpo daudenak, Movistar Internet Radio zerbitzuaren Baldintzetan agertzen direla, une oro eskuragarri daudenak [www.movistar.es/contratos](http://www.movistar.es/contratos) webgunean.

#### 2.5.- Zerbitzua emateko ekipamendua.

MOVISTAR-ek Zerbitzua emateko beharrezkoa den ekipamendua eskaintzen du. Ekipamendu horrek hau hartzen du barne:

- Modema/Bideratzailea Zerbitzua emateko irrati bidezko sarbide erradioelektrikoarekin.
- Irabazi erdiko antena, instalazioa barne.

Lehen aipatutako Modema/Bideratzailea alokairuzko erregimenean eskaintzen da, eta MOVISTAR izango da une oro horren jabea. BEZEROAK erabilera egokia emateko betebeharra du. Alokairuko erregimenean dagoen ekipamenduaren kontratazio eta funtzionamendu baldintzak alokairu hori arautzen duten baldintzen bidez arautuko dira, [www.movistar.es/contratos](http://www.movistar.es/contratos) helbidean argitaratutakoak.

Kontratu hau bukatzean, bertan aurreikusitako edozein arrazoirengatik, BEZEROAK Zerbitzuari lotutako Bideratzailea Kontratu bukatu eta hurrengo hamabost egun naturaletan itzultzeko konpromisoa hartzen du, 1004 zenbakira edo 1489 Erantzun Profesionaleko telefonora deituz adieraziko den prozedurari jarraituta, edo [www.movistar.es/importes](http://www.movistar.es/importes) web orrian adierazitakoa jarraituz.

BEZEROAK Bideratzailea adierazitako epean itzuliko ez balu, edo Bideratzaileak erabileragatik haraino doan edozein motatako aberia edo kalterik izango balu, horren piezaren bat faltan badago edo MOVISTAR-ek emandako modeloarekin bat egingo ez balu, honek bezeroari penalizazio moduan Bideratzaile horri dagokion prezioa fakturatuko dio, bere antzintasuna kontuan izanik.



Ekipamendutik kanpo gelditzen dira osagarriak diren elementu guztiak, hala nola kableatuaren luzapenak, antenen instalazioa, harguneak edo zerbitzua behar bezala emateko beharrezkoa ez den beste edozein elementu. Internet zerbitzuaren bajak banakako linea mantenduz Bideratzailearen erabilera eskatzen du; hortaz, kasu hauetan ez da itzuli behar.

## 2.6.- de Mantentze-zerbitzua.

MOVISTAR-ek BEZEROAREN eskura jartzen du Mantentze Zerbitzua, zeinaren bidez bere instalazioetan ematen diren aberiak konpontzeko betebeharra duen, abonatuaren etxean sarea bukatzen den puntura arte.

BEZEROAK arreta komertzialeko doako telefonoan (1004) jakinaraziko ditu aberiak, edo 1002 zenbakiaren bidez erantzuten den Arreta teknikoko zentroaren bidez. Aberia jakinarazten den momentu berean, BEZEROARI horren erreferentzia-zenbakia emango zaio.

Halaber, BEZEROAK aberiak jakinarazi ahal izango ditu MOVISTAR-en <http://www.movistar.es> webgunearen bidez.

Aberien konponketatik ondorioztatutako kostuak MOVISTAR-ek ordainduko ditu, horiek BEZEROARI egozten ez zaizkionean erabileragatiko edo kontserbazioko zabarkeriagatik, edo jarduketa engainagarri edo erruzkoengatik, sarearen gainean edo bere ekipoen gainean.

Gainerako kasuetan, MOVISTAR-ek bakarrik emango du Mantentze-Zerbitzua helbidean, BEZEROAK hala eskatuta, eta ezarritako prezioa ordainduta, MOVISTAR-ek URL honetan argitaratutako prezioen zerrendan agertzen dena: <http://www.movistar.es>.

Sarbidearen eta emandako Bukaeraren mantentzea Zerbitzu honetan sartuta dago.

Baldintza Berezi hauetan sartutako Mantentze-Zerbitzutik kanpo gelditzen dira BEZEROAK Sarearen Bukaera-Puntura (PTR) konektatutako Ekipoak. Puntu horretan bukatzen da MOVISTAR-ek emandako Zerbitzuari eusten dion sarea.

MOVISTAR-ek ez ditu bere gain hartuko kontratu honetan agertzen diren konpontze-konpromisoak aberia Sare Komunitarioko Azpiegituretik (Jabeen Komunitatearena dena) joaten diren transmisio-baliabideetan ematen denean, eta ez bada existitzen mantentze-kontratu espezifiko bat MOVISTAR-ekin azpiegitura horretarako, eta BEZEROARI egera honen berri eman behar zaio.

BEZEROAK, alde aurretik eskatuta eta behin dagokion hitzorduarekin, MOVISTAR-i, behar bezala identifikatutako honen langileei edo MOVISTAR-ek horretarako



izendatutako zerbitzu teknikoari zerbitzuen konexioa instalatuta dagoen instalazio eta ekipo informatikoetarako sarbidea berariaz baimentzeko betebeharra hartzen du, Instalazioaren edo Jazoeren konponketaren zerbitzuak eman ahal izateko, eta MOVISTAR-en ustetan, beharrezkoak diren mantentze-lanak egiteko, eta, Kontratua bukatzekotan, zerbitzuetarako konexioa ahalbidetzen duen instalazioa kentzeko.

BEZEROAK <http://www.movistar.es> helbidean argitaratuta dauden Zerbitzuaren aukera gehigarriak izago ditu.

### **3.- HASIERA ETA IRAUPENA**

Baldintza hauek kontratazioa egiten den datan sartzen dira indarrean, edo barne hartzen diren zerbitzuen alta efektiboko egunean. MOVISTAR eta BEZEROAREN arteko Hitzarmenak iraupen zehaztugabea izango du.

### **4.- FAKTURAZIO-PREZIOA ETA ORDAINKETA**

Hauek dira BEZEROAREN betebeharrak:

#### 4.1.- Zerbitzuaren prezioa.

Zerbitzuaren kontraprestazio moduan, BEZEROAK modalitate bakoitzari dagokion prezioa ordaindu beharko du, I. eranskinean agertzen diren prezioen arabera.

#### 4.2.- Fakturazioa eta Ordainketa.

- (i) Emandako zerbitzuen fakturazioa hileroko egingo da.
- (ii) Zerbitzuari dagokion ordainketa faktura kobratzeko ordutik eskatu ahal izango da, eta BEZEROAK horretarako adierazitako Bankuko edo Aurrezki Kutxako kontuaren bitartez egingo da edo, bestela, MOVISTAR-ek horretarako adierazitako lekuan, zeina BEZEROARI bidalitako ordainketa-abisuan zehaztuko den. Fakturan ordainketa egiteko epea zehaztuko da.
- (iii) Igorritako lehenengo fakturan, klausula honetan zehaztutakoa jarraituz, altaren kuotari dagokion zenbatekoa sartuko da eta, dagokionean, Zerbitzura sartzen den Ekipamenduaren zenbatekoa. Lehenengo kuota hainbanatu egingo da Zerbitzua indarrean sartzen den dataren arabera.
- (iv) Zerbitzu hau kontratatuz gero, BEZEROAK onartzen du faktura formatu elektronikoan jasotzea, nahiz eta, kontratazioan, faktura orrian jasotzeko



eskubidea duen. Onarpen honek berekin dakar formatu elektronikoko fakturazioa zabaltzea, halaber, BEZEROAK Telefónica de España, S.A.U.-rekin kontratatuta duen edo geroago kontratatzen duen Movistar Finkoko produktu guztietara.

- (v) Aurrekoari kalterik egin gabe, BEZEROAK edozein momentutan aukeratu ahal izango du faktura paperean jasotzea, 1004 Arreta Pertsonaleko Zenbakira deituz edo Erantzun Profesionaleko 900.10.10.10 telefonora deituz.

Komunikazio elektronikoa ez diren zerbitzuei dagozkien zenbatekoak barne hartzen dituzten fakturretan, MOVISTAR-ek banakapena komunikazio elektronikoen zerbitzu edo zerbitzuei dagokion zenbatekoa identifikatu daitekeen moduan egingo du.

## **5.- ZERBITZUAREN ALDAKETAK**

Bezeroak konpromisoa hartzen du kontratuko datuetan gertatzen diren aldaketen berri emateko Movistar-i, batez ere fakturazio-helbideari eta ordainketak helbideratzeko banku-kontuari dagozkionak.

Movistar-ek, Alderdien arteko prestazioen oreka berrezartzeko helburu bakarrarekin, kontratuan zehaztutako baldintzak aldatu ahal izango ditu, eta, bereziki, horren prezioa. Horretarako, arrazoi hauetako bat izango du, Movistar-ek Zerbitzuaren tarifak finkatu eta geroagoko egoera baten ondorio direnean:

- Movistar sartuta dagoen enpresa-sektoreko kostuak handitzea, estaldura, sarearen kalitatea edo emandako Zerbitzuaren ezaugarriak hobetzeko.
- Zerbitzua emateko baldintzei eragiten dieten arau-aldaketak (zergak, tasak edo ebazpen administratibo edo judizialak barne).
- Kontsumorako prezioen indizearen (KPI) edo, horrelakorik ezean, prezio industrialen indizearen (IPRI) gehikuntza.

Movistar-ek edozein aldaketaren berri eman behar dio bezeroari dagokion arrazoi xedatuarekin, gutxienez, aldaketa gauzatu baino hilabete BAT (1) lehenago. Bezeroak eskubidea du kontratua penalizaziorik gabe eteteko, bezeroak berak hartutako beste konpromiso batzuei kalterik egin gabe. Hilabete bateko epean Movistar-ek jakinarazpenik jaso ez badu, Bezeroak aldaketak onartzen dituela ulertuko da.

## **6. ZERBITZUEN ERABILERA EGOKIA.**

6.1.- BEZEROAK Zerbitzuan sartutako zerbitzu eta prestazioen zentzuzko erabilera egiteko konpromisoa hartzen du, bai eta MOVISTAR-ek ematen dion beste edozein



zerbitzuren ere. BEZEROA MOVISTAR-en aurreko erantzulea izango da MOVISTAR-i edo hirugarrenei kalte-galeren bat eragin ahal dien beste edozein erabileragatik eta, bereziki, bezero partikularren kasuan, izaera guztiz pertsonaleko komunikazioekin bat ez datorren erabilera suposatzen duen MOVISTAR-en zerbitzuen beste edozein erabileragatik.

Aipatutako kasu guztietan, bai eta Zerbitzurako aurreikusitako komunikazio zehatzeko xedea ez den edo modu desegokian ematen diren kasuetan, MOVISTAR-ek Zerbitzua eteteko edo betirako bukatzeko eskubidea gordetzen du (horren berrezarpena, hala erabakitzekotan, MOVISTAR-ek bezeroari eskatutako bermeen ekarpenaren mende jarritz). Halaber, Zerbitzuaren erabilera egokitik kanpo emandako edozein motako trafikoa kobratzeko eskubidea ere gordetzen du, kasu honetan momentu bakoitzean indarrean dagoen erabileragatiko ordainketa moduko prezio estandarrean tarifikatuz, Telefónica de España, S.A.U.-ren prezioen Katalogoaren arabera, [www.movistar.es](http://www.movistar.es) webgunean argitaratuta eta eskuragarri dagoena, kontsultarako eguneratua. Kasu horietan ezin izango da Zerbitzuari edo beste edozein eskaintzari lotutako prezioaren murrizketa aplikatu, ezta oraingo zein etorkizuneko edozein zerbitzuren prezioaren murrizketa dakarren trafiko-frankiziarik edo aurrezpen-modulu ere ez.

Aurrekoa alde batera utzita, eta zerbitzuaren erabilera desegokia ematekotan, deskribatutakoaren arabera, antzekoak diren etorkizuneko erabilerak ematen badira ere, MOVISTAR-ek BEZEROARI, honi alde aurretik jakinaraziz, erakutsitako erabileraredukin gehien bat egiten duen tarifaren modalitatea esleiteko aukera ere gordetzen du, honi komertzialki eskuragarri daudenen artean egokiagoa iruditu ahal zaion beste edozeini kalterik egin gabe.

6.2.- BEZEROAK Zerbitzua legearen, moralaren, normalean onartzen diren ohitura onen eta ordena publikoaren arabera erabiltzeko konpromisoa hartzen du, bai eta Zerbitzua edota gainerako zerbitzuak Baldintza Berezi hauetan debekatutako bidegabeko xede edo efektuekin erabiltzera uko egiteko konpromisoa ere. Halaber, zerbitzuak beste BEZERO edo Interneteko erabiltzaile batzuen (hardwarea eta softwarea) ekipo informatikoak edo haien ekipo informatikoetan (hacking) gordetako dokumentu, fitxategi eta eduki guztiak edozein modutan kaltetu, erabilezin bihurtu, gainkargatu edo hondatu ahal dituzten edozein bideri uko ekiteko konpromisoa hartzen du, bai eta gainerako BEZEROEK eta Interneteko beste erabiltzaileek Zerbitzu horien, ekipo informatiko eta dokumentu, fitxategi eta edukietaz gozatzea galarazten duten edozein bideri uko egiteko konpromisoa ere.

Praktika horiengatik kaltetutako BEZEROAK MOVISTAR-i jakinarazi ahal izango diote [abuse@movistar.es](mailto:abuse@movistar.es) helbidearen bidez edo <http://www.movistar.es/nemesys> webguneko formularioaren bidez.





Halaber, Zerbitzuaren erabilera bereziki esparru profesional edo pribatura zuzendu ahal izango da BEZEROAK Zerbitzua emateko adierazi duen bitokian.

Zerbitzua kokapen finko batetik ematen da; hortaz, guztiz debekatuta gelditzen da Zerbitzuaren erabilera BEZEROAK kontratatu duen bitokitik kanpo, non Movistar-ek instalazioa gauzatu duen.

Halaber, guztiz debekatuta gelditzen dira Zerbitzuaren birsalmenda edo komertzializazioa Zerbitzuaren prestaziotik kanpo dauden hirugarrenei edo, edozein kasutan, baliabideak partekatzea Zerbitzua ematea eskatu den bitokitik kanpo edo, BEZEROA Jabeen Komunitate bat izanik, gune komuneetatik kanpo ematea.

BEZEROA izango da kontratatutako zerbitzuen erabilera okerraren erantzulea MOVISTAR-en aurrean.

#### 6.2.1.-Zerbitzuarekin emandako Softwarearen kopiak.

BEZEROAK Softwarearen kopia bakarra egin ahal izango du, Zerbitzuarekin konexioa ezartzen den ekipo informatikoaren disko gogorrean instalatzeko.

BEZEROAK ez du Softwarearen beste kopiarik egingo, ez die Softwarearen kopiarik bidaliko hirugarrenei eta ez du inolako moduan Softwarea hirugarrenen eskura jarriko. Halaber, ez du Softwarea erabiliko Baldintza Orokor hauetan aurreikusitako beste edozein helbururako eta BEZEROAK, behin Kontratu hau bukatuta, bere jabetzako Programaren kopia edo kopiak suntsitu egingo ditu.

#### 6.2.2.- Edukien erabilera egokia.

##### 6.2.2.1. - Edukien transmisioa, difusioa eta hirugarrenen eskura jartzea.

BEZEROAK Zerbitzua legearen arabera, Baldintza Orokor hauen arabera, moralaren eta orokorrean onartutako ohitura onen eta ordena publikoaren arabera erabiltzeko konpromisoa hartzen du, bai eta BEZEROAREN edo hirugarrenen bidez lortutako, transmititutako, zabaldutako edo eskura jarritako edozein informazio, mezu, grafiko, marrazki, soinu edota irudi fitxategi, argazki, grabazio, software eta, orokorrean, edozein material-mota ere (aurrerantzean, "Edukiak").

Adierazgarri gisa, BEZEROAK atariaren zerbitzuen bidez "Eduki" hauek ez erabiltzeko, transmititzeko, zabaltzeko edo hirugarrenen eskura jartzeko konpromisoa hartzen du: (a) konstituzionalki aitortutako askatasun publikoen eta funtsezko eskubideen kontrakoak direnak, horiek gutxiesten dituztenak edo horiek erasotzen dituztenean; (b) delituzko jokabidea, jokabide iraingarria, beltzailea, biolentoa edo, orokorrean, legearen, moralaren eta orokorrean onartutako ohitura onen edo ordena publikoaren kontra doana eragiten, bultzatzen edo sustatzen dituztenak; (c) jokabide, jarrera edo



pentamendu diskriminatzaileak eragiten, bultzatzen edo sustatzen dituztenak sexu, arraza, erlijio, ideia, adin edo kondizioagatik; (d) produktu, elementu, mezu edota delituzko zerbitzuetara, biolentoetara, pornografikoetara, umiliagarrietara edo, orokorrean, onartutako ohitura onen edo ordena publikoaren kontra doazenetara sarbidea duten, eskura jartzen duten edo satzea ahalbidetzen dutenak; (e) beldurrezko edo antsietatezko egoera jasanezin batera eramaten dutenak edo eraman dezaketenak; (f) praktika arriskutsuetara edo osasunarentzat eta oreka psikikoarentzat txarrak direnetara bultzatzen dutenak; (g) faltsuak, anbiguoak, okerrak, zehaztugabeak, esajeratuak edo ezordukoak direnak, bere helburuaren inguruan edo komunikatzailearen asmoei buruzko ideia okerra eragin ahal izateko moduan; (h) hirugarrenenak diren edozein jabetza intelektualeko edo industrialeko eskubideekin babestuta daudenak, BEZEROAK egiten duen edo egin nahi duen erabilerarako beharrezko baimena aurrez bere titularrengandik lortu gabe; (i) "copyright-a" edo eskubideen edo babeserako gailu teknikoek gainerako datu identifikatzaileak dituztenak, aztarna digitalak edo kentzearen edo manipulazioaren informazio-mekanismoren arrazoia izan direnak; (j) hirugarrenen enpresa-sekretuak urratzen dituztenak; (k) ohore-eskubidearen, intimitate pertsonal eta familiarraren edo pertsonen berezko irudiaren kontrakoak direnak; (l) komunikazioen sekretuari buruzko araudia urratzen dutenak; (m) legez kontrako publizitatea, engainagarria edo desleiala direnak eta, oro har, konpetentzia desleiala direnak; (n) hirugarrenen sarearen, sistemaren edo ekipo informatikoaren (hardware eta software) funtzionamendu arrunta kaltetu edo galarazi ahal duten birusak edo bestelako elementu fisiko edo elektronikoak dituztenak, edo ekipo informatiko horietan gordetako dokumentu elektroniko eta fitxategiak kaltetu ahal dituztenak; (ñ) bere ezaugarriengatik (luzapena, formatua, etab.) zerbitzuaren erabilera normala galarazten dutenak; (o) edo terrorismoaren, genozidioaren eta teoria errebisionisten apologia egiten dutenak.

MOVISTAR-ek ez du BEZEROEK transmititutako, zabaldutako edo eskura jarritako Edukien edukia edo horien izaera kontrolatzeko betebeharririk, eta ez ditu kontrolatzen. Hala ere, MOVISTAR-ek edozein momentutan eta alde zure abisurik gabe, berezko inizatibaz edo hirugarren batek eskatuta, BEZEROEK transmititutako, zabaldutako edo hirugarrenen eskura jarritako Edukiak berrikusteko eskubidea gordetzen du, legezko mugen barruan, eta horien transmisioa, difusioa edo hirugarrenen eskura jartzea galarazteko neurriak hartzeko eskubidea ere justifikatutako arrazoiak daudenean.

## **7. BESTE BALDINTZA BATZUK**

Kontratu honi ondoko baldintza hauek ere aplikatzen zaizkio, une oro zure eskura jartzen direnak webgune-orri hauetan:

- Zerbitzu telefoniko finkorako Abonu orokorreko kontratua



[movistar.es/rpmm/estaticos/residencial/fijo/lineas-individuales/contratos/contrato-abonogeneral-serviciotelefonicofijo.pdf](http://movistar.es/rpmm/estaticos/residencial/fijo/lineas-individuales/contratos/contrato-abonogeneral-serviciotelefonicofijo.pdf)

- Movistar Internet Radio zerbitzuko baldintza orokorrak  
[movistar.es/rpmm/estaticos/residencial/fijo/banda-ancha-adsl/contratos/condiciones-generales-del-servicio-movistar-internet-radio.pdf](http://movistar.es/rpmm/estaticos/residencial/fijo/banda-ancha-adsl/contratos/condiciones-generales-del-servicio-movistar-internet-radio.pdf)
- Uko egiteko eskubidea gauzatzeari buruzko informazioa  
[movistar.es/contratos/derechodesistimiento](http://movistar.es/contratos/derechodesistimiento)

## I. ERANSKINA- MOVISTAR CONECTA RURAL ZERBITZUAREN PREZIOA

	<b>Altaren, instalazioaren eta sarera moldatzearen kuota</b>	<b>Hileko kuota</b>
<b>Movistar Conecta Rural</b> <sup>(1) (2) (3) (4)</sup>	119,8347 € (145,00 € % 21eko BEZa barne)	53,7190 € (65,00 € % 21eko BEZa barne)

(1) Jatorri eta helburu telefono finko nazionalak dituzten dei interpersonalentzako Tarifa finko nazionala hartzen du barne. Hauek gelditzen dira tarifa finkotik kanpo: tarifa berezien zenbakietara egindako deiak (902, 901, 060, 0XY, 118AB..., besteak beste), helburu bezala mugikor nazionalak dituztenak, nazioarteko numeraziokoak, bai eta tarifakazio gehigarriko numerazioetara egindakoak (905, 80X), nazioartekoak eta Premium zerbitzuak ere.

(2) Linea indibidualaren kuota hartzen du barne.

(3) Banda zabal finkoko interneterako konexioa hartzen du barne, 30 Mb-eko jaitzierako abiadurarekin eta 800 Kbps arteko igoerako abiadurarekin, ondorengo kontratu honetan zehaztutako baldintzekin.

(4) Altaren, instalazioaren eta sarera moldatzearen kuotak antenaren eta gainerako ekipamenduaren instalazioa hartzen du barne (bideratzailea alokairu moduan eskaintzen da, kontratu honetan adierazitako baldintzekin).



Kontratatutako produktua, dagokionean, duen frankizia gaintzen duten finkoetatik mugikor nazionaletara egindako deiek honako kostu hau izango dute: dei-ezarpena: 0,2892 €, (0,35 € BEZ barne) eta prezioa minutuko: 0,2066 €, (0,25 € BEZa barne).

### **OBSERVACIONES**

- Aurreko BEZ gabeko prezioei Kanariar Uharteei (IGIC) eta Ceuta eta Melillari (IPSI) dagozkion zeharkako zergak aplikatuko zaizkio. Penintsula eta Balearretan %21eko BEZa aplikagarri, Ceutan %10eko IPSIa, Melillan %8ko IPSIa eta Kanariar Uharteetan %7ko IGICa. Altak Zerbitzuaren aktibazioa eta instalazioa hartzen du barne.
- Barneko kableatuaren eta mikroiragazkien kuotak, bai eta Zerbitzuaren Aukera Gehigarriak momentu bakoitzean URL honetan agertzen den eskaintzaren arabera fakturatuko dira: [www.movistar.es](http://www.movistar.es)